

## “Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren”

### 5. alearen aurkezpena

Egunon guztioi, mila esker ekitaldi honetara hurbiltzeagatik eta gurekin izateagatik eta bide batez gizarte osora kultur proiektu esanguratsu hau aditzera ematen laguntzeagatik.

Gutziz pozez betetzen nau, orain eta hemen “Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren”ren bostgarren alea aurkeztuko dugun ekitaldi honetan, haren partaide naizen LABORAL Kutxa ordezkatzeko aukera izatea.

Eta euskararentzat hain esanguratsua den proiektu honen ardura duen Euskaltzaindiako lehendakariarekin, **Andres Urrutiarekin** batera izatea.

Eta gaurko ekitaldian ere Ana Castro, Patxi Baztarrika, eta Adolfo Arejita parte hartzea ere dugu.

“Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren” osatzen duten hamabi (12) bildumen bostgarren (5) alearen aurkezpen ekitaldian izatea, ohore berezia dela aipatzen nuen. Eta ohorea da, eskuartean dugun proiektu hau guztiz erraldoia delako, borondate, zein, asmo ugarien parte hartzearekin bakarrik egi bihurtu daitekeen horietakoa.

Nire lehen hitzak, eskerrak ematea, erronka honetan lagundu edo parte hartu duten guztiontzat :

(1) **Euskaltzaindiari** ere, noski, erronka hau bere gain hartzeagatik, eta hau burutzeko orduan azaldu duen bere adorea eta kemenagatik. Gipuzkoa, Bizkaia, Araba, Nafarroa, Behe Nafarroa eta Zuberoko pertsona multzo zabala elkarriketatu egin dela gogorarazi nahi dut. Tokian tokiko lan oso arduratsua burutu da, grabazio saio handietan jasota (lau mila ordu) eta informatizazio, analisi, sailkatze... lan ikaragarria ere egin da. Eskerrik asko akademia zuzendaritzari eta ikertzaile guzti-guztiei.

(2) Eta guztiok ere eskerrak eman behar dizkiegu **beraien “jakintza” guztiokin partekatze**ko aukera eskeini diguten **pertsona orori**. Haien testigantzek, munduan bizirik dirauen hizkuntzarik zaharrena, euskara alegia, etorkizunerako ondare garrantzitsua berreskuratzea eta gordeta mantentzea ahalbideratu baitute. Hauetako askok zendu, hil, dira eta beraien esker oneko laguntzarik gabe kultur ondare berezi hau betirako galduta suertatuko litzatekela azpimarratu behar dugu.

(3) Eta azkenik, esker onak ere amankomuneko obra hau bideratzeko laguntza eta gizarte guztiaren eskura jartzeko aukera bermatzeko ahalegina eman dutenei. Ez da ahaztu behar, Ezagutza, partekatzen denean, soilik zentzua hartzen duela. Horrexegatik, obra hau gizarteratzeko egiten dezuten ahaleginagatik zuen laguntza

eta ordezkutzen dituzuten komunikabideena ere eskertzen dut.

LABORAL Kutxarentzat ohore handia da lan aipagarri hau argitaratua izateko laguntza eskeini izana. Garai zailetan bizi gara guztiok, non, baliabideak geroz eta murrizagoak diren baina, guk behintzat, gure gizarte konpromezua berrindartzen jarraitu nahi dugu. Hau izan da berrogeitahamar (50) urteetan gure gizarte ardura aipagarriena. Alegia gure irabaziak gizarteratzea, batez ere, kultura zabalduz eta suspertuz.

Krisi latz honek zerbait erakutsi badigu, helburu ekonomikoak eta etika balioak paretik, eskutik, joan behar direla da. Eta horrexegatik, honaino iristea ahalbidetu gaituzten balio horiek defendatzen jarraituko dugu, gizartearen aurrean sinesgarritasuna eta konfiantza izaten jarraitzen lagundu gaituztelako.

Nire hasierako hitzek adierazi duten bezala, Euskaltzaindiarekin batera gauzatzen ditugun beste proiektu garrantzitsu batzuk gogoraraziz amaitu nahi dut. Obra hau ezagutzeko gonbitea luzatzen dizuet.

Eta nola ez, eskerrak guztioi “ Euskararen Herri Hizkeren Atlasa”ren hedapenerako eta zabalkuntzarako burutzen dezuten paperagatik.

Bilbon, 2013ko abenduaren 12an  
Pello Ugalde, Laboral Kutxaren Lurralde zuzendaria